



Checklist



Bazaude ia-ia zure etxebizitzaren jabea izateko bidearen amaieran. Bilatzen hasi zarenetik eskriturak egin arte behar den guztia kontuan hartu duzula ziurtatzeko, galdetegi labur hau betetzea proposatu nahi dizugu, izan ere, galdera eta erantzun garrantzitsuenak bertan dituzu.

01 | Bilaketa

- Ingurune edo eremu honetako etxebizitzaren metro karratuaren kostua zein den begiratu dut.
- Gutxienez bi APIS etxebizitza-agentzia bisitatu ditut.
- Gutxienez 5 etxebizitza ikusi ditut.
- Babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzak eskuratzeko eta etxebizitzak zaharberritzeko moduaren berri izan dut.
- Ordain nezakeen hileko kuota begiratu dut.
- Salerosketaren eta hipotekaren gastuak kalkulatu ditut.
- Ordain nezakeen etxebizitzaren zenbatekoa kalkulatu dut.
- Kutxabankera joan naiz.

02 | Salerosketa

- Jabegoaren erregistroan ohar soila eskatu dut (titularrak eta kargak).
- Kargarik badauka, eskritura baino lehen horiek kentzeko obligazioa sartu dut kontratuan.
- Jabekideen komunitateari ordainketen egoeraren oharra egitea eskatu diot.
- Katastroko oharra eskatu dut.
- Erosle bat baino gehiago egonez gero, bakoitzaren titulartasunaren proportzioa argitu dut.
- Salerosteko kontratua izenpetu baino lehen bankura jo dut.
- Kontratuan beren beregi ipini dut saltzaileak gainbalioa eta ekitaldiko hiri-lurraren kontribuzioa ordaintzen dituela.

03 | Hipoteka

- Negoziatzeko dudan posizioa ordaintzeko gaitasunean, kaudimenean eta erakutsitako esperientzian oinarritu naiz.
- Bankuek egindako 3 eskaintza gutxienez baloratu ditut irekitze-komisioan, interesean eta epean oinarrituta.
- Erakunde horien kaudimen, profesionaltasun eta gertutasuna baloratu ditut.
- Haien kutxazain eta bulego erabilgarriak eta online gestioak egiteko aukera ere baloratu ditut.
- Zehatz-mehatz aztertu ditut finantzatzeko aukera guztiak erabiltzen dudan bankuarekin.

04 | Eskriturak

- Egun batzuk lehenago bankuarekin aztertzen ibili naiz notaritzan sinatzeko eta saltzaileari ordaintzeko unea.
- Izenpetzean agertzen diren eragileak.
- Hipoteka-maileguaren eskrituran agertzen den informazioa.
- Notaritzan izenpetzeko dagoen dokumentazioa (sinatu baino lehenagoko 3 lanegunen epearen barruan) aztertu dut.
- Eskriturak izenpetzerako beharrezko informazio osoa daukat.